



NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN

XXIII NAFARROA

SARIA

XXIII PREMIO INTERNACIONAL "NAVARRA" A LA SOLIDARIDAD

XXIII "NAVARRÉ" INTERNATIONAL PRIZE FOR SOLIDARITY

XXIII PRIX INTERNATIONAL DE LA SOLIDARITÉ "NAVARRA"

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



LABORAL
kutxa





NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN XXIII
NAFARROA
SARIA

2026KO EDIZIOAREN OINARRIAK

1.- Sariaren helburua eta diru-kopurua

- 1.1. Hau da sariaren helburua: nabarmentzea eta aintzat hartzea nazioarteko garapenerako lankidetzaren edozein alorretan nabarmendu diren erakunde, gobernu kanpoko erakunde eta pertsona fisikoen lana, batez ere Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko emandako laguntza, betiere garapen bidean dauden herrialdeetan egindako jarduketan adibideak adierazita.
- 1.2. Saridunak 25.000 euro jasoko ditu eskudirutan. Saria xede horrekin antolatutako ekitaldi publikoan banatuko da. Egun eta data formatua egoeraren arabera finkatu eta behar bezala iragarriko dira. Erakunde edo pertsona saridunak sari-banaketako ekitaldian parte hartu beharko du —ezinbesteko kasuetan salbu, eta kasu horretan, ordezkari bat joan ahal izango da—, baita sari-banaketaren harira antolatzen diren beste jarduera batzuetan ere, egoerak horretarako aukera ematen badu.
- 1.3. Antolatzailea arduratuko da saria jasoko duen pertsona bertan izateak sortutako gastuez.

2.- Non eta noiz aurkeztu hautagaitzak

- 2.1. Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez, telematikoki aurkeztu behar dira bai hautagaitzak eta baita dagokien dokumentazioa ere. Nafarroako zerbitzu-atarian argitaratutako fitxa erabili behar da horretarako, Eskubide Sozialetako Departamentuaren webgunera sartuz, eta Garapenerako eta Ekintza Humanitariorako Lankidetzaren Atalari bidali behar zaio: <https://navarrasolidaridad.navarra.es/eu/>.
- 2.2. Posta elektronikoz ere aurkez daitezke, helbide honetara bidaliz: servcoopdes@cfnavarra.es. Posta ziurtatuz ere bidal daiteke, Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusira (González Tablas kalea, 7 – 31005 Iruñea, Espainia), gutunazalean hau jartzen duela: Elkartasunaren Nazioarteko «Nafarroa» Sarirako. Mezularitza-zerbitzuz bidaltzen bada, posta elektronikoz jakinarazi behar da (goian aipatutako helbidera bidaliz), bidalketa egiten den egun berean.
- 2.3. Hautagaitzak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, oinarri hauek NAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3.- Proposamenak egin ditzaketen erakundeak

- 3.1. Edozein herrialdeetako erakunde publikoek (gobernuek, ministerioek, udalek, unibertsitateek, akademiek, ikerketa-zentroek, enbaxadek, kontsulatuek...) gain, legez eraturako hezkuntza-, kultura- eta gizarte-erakundeek, gobernu kanpoko erakundeek eta enpresa pribatuek ere aurkeztu ditzakete hautagaitzak, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazio Autonomikokoek izan ezik.

Aurreko bi deialdietan finalista izandako hautagaitzak berreskura daitezke.

- 3.2. Norbaitek bere burua edota legez ordezkatzeko duen erakundearen izena aurkeztuz gero, hautagaitza hori baztertu egingo da.
- 3.3. Sarirako hautagaitzak aurkezteak berekin dakar oinarri hauek oso-oso onartzea.

4.- Zer dokumentazio eskatzen den

Dokumentazio hau aurkeztu behar da hautagaitzarekin batera:

- a. Proposaturiko erakundearen edo pertsonaren nortasun juridikoa egiaztatzeko datuen berri ematen duen agiria, II. eranskinean jasotako ereduari jarraikiz.
- b. Azalpen-txosten bat (2.000 hitz gehienez), saria eskuratzeko merituak egiaztatzen dituzten ekintza, programa, neurri eta gainerako informazioa jasotzen dituen (III. eranskinean dago txosten hori aurkezteko eredu).
- c. Azaldutako merituak egiaztatu eta ziurtatzen laguntzen duen edozein dokumentazio osagarri, erakunde publiko edo pribatuek nahiz ospe handiko pertsonalitateek hautagaitza babesteko egindako eskutitzak barne harturik.

Aurreko urteetan hautagairen bat aurkeztu eta berriz ere aurkezteko asmoa duten erakundeek datu hauek ematen dituen agiri sinatu bat aurkeztu behar dute: zer urte eta ediziotan aurkeztu zen hautagaitza aurretiaz; edizio hartan aurkeztutako dokumentazioaren baliozkotasuna (informazio osagarria edo beste material batzuk; esate baterako, DVDak, liburuak eta abar). Halaber, hautagaitza horren merituak egiaztatzeko agiri eguneratua (II. eranskina) aurkeztu behar dute, eta azalpen-txosten eguneratua (III. eranskina). Dokumentazio osagarri gehiago ere aurkeztu daiteke.

Hamar egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo ezinbesteko agiriak aurkezteko ere eska dakioke hautagaitzaren aurkezleari, eta jakinarazi hori egin ezean ez zaiola hautagaitza onartuko.

5.- Izapideak

- 5.1. Aurrehautaketa ez-loteslea egin dezakete Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak eta Laboral Kutxak saria emango duen epaimahaiarentzat. Horretarako, finalisten proposamenaren nahiz aurkezturiko gainerako hautagaien berri emango diote.
- 5.2. Aurrehautaketa-fasean, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, epaimahaiaren orientagarri:
 - a) Elkartasun-lana kokatzen den testuinguruaren azterketa.
 - b) Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko ahaleginari egiten zaion ekarpena.
 - c) Edukiaren izaera berritzailea.
 - d) Iraunkortasuna: esku hartu den komunitatean edo esparruan sustraituta egotea.
 - e) Lana talde ahulei laguntzera bideratzea.
 - f) Antzeko erakunde edo sareekiko lankidetzak eta/edo koordinazioa.
 - g) Esku hartutako herritarrengan, erakundean edo arloan sariak izango dituen onura eta/edo zeharkako eragin onuragarriak.
 - h) Proposatutako erakundeen gaitasun instituzionala edo pertsonen ibilbide profesionala.
 - i) Genero-ikuspegiak proiektuan duen garrantziaren maila.
- 5.3. Sariari buruzko edozein informazio jasotzeko, jarri harremanetan Nafarroako Gobernuarekin (Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua), + 34 848 42 50 43 telefono-zenbakira deituz edo mezu elektroniko bat bidaliz helbide honetara: servcoopdes@cfnavarra.es
- 5.4. Deialdia egin duten erakundeei dagokie, soil-soilik, haren inguruan sor litezkeen gai edo auzi guztiak ebaztea.

6.- Epaimahaia, erabakia eta saria ematea

- 6.1. Sei lagunek osatuko dute epaimahaia (presidenteak eta bost kideak), guztiak ere ospe handiko eta elkartasunaren munduarekiko sentsibiltate aitortu eta nabarmena duten pertsonen eta profesionalen artean aukeratuak. Emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua aurreikusi behar da epaimahaia osatzeko.
- 6.2. Zer hautagai hautatu erabakitzeko, aurrehautaketarako erabilitako irizpide berberak baliatu behar ditu epaimahaiak.
- 6.3. Aho batez eman behar dute saria epaimahaikideek; erabateko adostasunik ez badago, gehiengo soilez.
- 6.4. Epaimahaiaren erabakia prentsaurreko bidez jakinaraziko zaie hedabideei. Saria zer erakunde edo pertsonak irabazi duen jakinaraziko da edo, horrela badagokio, hutsik gelditu dela.
- 6.5. Ekitaldi publiko batean emango da saria. Momentuko egoera kontuan hartuta erabakiko da noiz eta zer formatutan egingo den ekitaldia, eta garaiz emango da haren berri.
- 6.6. Saritutako erakundearen ordezkariak edo pertsonak erabateko prestasuna izango du sari-banaketaren egunean eta hurrengo egunean, antolatzaileak proposatutako ekitaldietan eta jardueretan parte hartzeko.

II. ERANSKINA

Proposamena egiten duen erakundearen datuak

Hautagaitza proposatzen duen erakundearen izena:

Arduradunaren izen-abizenak eta kargua:

Helbidea:

Posta-kodea:

Herria:

Probintzia:

Herrialdea:

Telefonia:

E-maila:

Webgunea (izanez gero)

IFZ edo IFK:

Hautagai den pertsonaren edo erakundearen datuak

Hautagai den pertsonaren edo erakundearen izen-abizenak:

Helbidea:

Posta-kodea:

Herria:

Probintzia:

Herrialdea:

Telefonia:

E-maila:

Webgunea (izanez gero)

IFZ edo IFK:

Erakundea inskribatuta dagoen erregistroaren izena eta inskripzio-zenbakia:

Jardueraren garapenaren hasiera-urtea:

Jarduera zein herrialdetan egiten den:

Egiten duen jarduera nagusia:

Artatutako pertsonen kopurua:

III. Eranskina

Azalpen-txostena. Erantzun alderdi hauei, 2.000 hitz gainditu gabe:

- Hautagai den pertsonaren edo erakundearen ibilbide profesionala.
- Lan solidarioa egiten den eremuko testuinguru soziala eta ekonomikoa.
- Lan egiten den komunitatean edo inguruan duen errotzea.
- Zein kolektiborekin lan egiten den eta gutxi gorabeherako onuradun-kopurua.
- Egiten diren jardueren eta jarduketaren deskribapena.
- Beste erakunde edo sare batzuekiko koordinazioa eta/edo lankidetzak.
- Sariaren zuzkidurak eta aitorturak herritarrei edo esku hartzeko eremuei ekar diezazkiekeen alboko/zeharkako onurak.
- Eman nahi diren beste datu interesgarri batzuk.



premiosolidaridad@navarra.es

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



LABORAL 
kutxa